| DBE edo BGDS eskatzen duten pertsonek, prestazio hori jaso aurretik, laguntza berezia jaso ahal izango dute kontzeptu horrengatik, salbuespenezko egoeretan eta balorazio teknikoa egin ondoren. | *Las personas solicitantes de RGI o IMV, antes de acceder a dicha prestación, podrán recibir una ayuda especial por este concepto, en situaciones excepcionales y previa valoración técnica.* |
| Laguntzak nahitaezko gizarte-txostena beharko du onartu ahal izateko. Txosten horretan, salbuespenezko laguntza ekonomiko bat emateko egoerak zehaztuko dira (Laguntza-jasotzaileari sinatu araziko zaio legez dagozkion laguntzak eskatu eta horiek jasotzeko konpromisoak beteko dituela). | *La aprobación de la ayuda requerirá un informe social preceptivo, en el que se detallarán los supuestos de concesión de la ayuda económica excepcional (La persona perceptora de la ayuda estará obligada a suscribir el cumplimiento de los compromisos que adquiere al solicitar y percibir las ayudas que legalmente le corresponden).* |
| Egoera horiek konpontzeko, lehen mailako premien eta aurretiko zorpetzearen kontzeptuetara jo ahal izango da. | *Con el fin de solventar este tipo de situaciones, se podrá acudir a los conceptos de necesidades primarias y endeudamiento previo.* |
| Prestazioak ebatzi eta jasotzen diren unean, jasotako zenbatekoak udalari itzultzeko betebeharra deklaratzeko aukera dago. | *En el momento de la resolución y recepción de las prestaciones podrá declararse la obligación de reintegrar al ayuntamiento las cantidades percibidas.* |
| Puntu honetan salbuespen gisa hartu ahal izango dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, DBE eta | *En este punto se podrá exceptuar a las mujeres víctimas de violencia de género, a quienes se encuentren a la espera de recibir la RGI y el IMV, a aquellas personas a quienes no* |

Bergarako Udala

BGDS jasotzeko zain daudenak, Eusko Jaurlaritzak egoera horietarako aurreikusten duen laguntza ekonomikoa ez dagokienak (edo berandu jaso dezaketenak), babes eta larrialdi etxeetan sartzen direnak eta esku-hartze prozesu batean daudenak.

| BU kide-kopurua | Zenbatekoa €/hilean |
|---|---|
| 1 | 300 |
| 2 | 400 |
| 3 edo gehiago | 500 |

Oharra: Urteko gehieneko kopurua, 2.500 euro.

*corresponda (o pueda demorarse) la ayuda económica contemplada por el Gobierno Vasco para estas situaciones, a quienes accedan a centros de protección y emergencia y a quienes se encuentren en un proceso de intervención.*

| *Nº miembros UC* | *Cuantía €/mes* |
|---|---|
| 1 | 300 |
| 2 | 400 |
| 3 o más | 500 |

*Nota: Cuantía máxima anual, 2.500 euros.*

1.6.2.- Oinarrizko premien gastuak:

Atal honetan adierazitako puntuetan adierazi ez diren jantzien, elikagaien eta abarren beharrak estaltzeko gastuak, presakoak: gehienez, 900 euro.

*1.6.2.- Gastos de necesidades primarias:*

*Gastos urgentes para cubrir necesidades de vestuario, alimentación, etc. no indicadas en los puntos señalados en este apartado: máximo, 900 euros.*

1.6.3.- Prestazio soziosanitarioak:

Prestazio soziosanitarioen urteko gehieneko zenbatekoa 1.400 eurokoa izango da bizikidetza-unitate bakoitzeko.

| Kontzeptua | Gehienez €/urteko/pertsonako |
|---|---|
| Begi-protesiak | 300 |
| Hortzen konponketak -protesiak | 600 |
| Farmazia gastuak | 500 |

*1.6.3.- Prestaciones sociosanitarias:*

*La cuantía máxima anual de las prestaciones sociosanitarias será de 1.400 euros por cada unidad convivencial.*

| Concepto | Máximo €/año/persona |
|---|---|
| Prótesis oculares | 300 |
| Reparaciones dentales - Prótesis | 600 |
| Gastos farmacéuticos | 500 |

1.6.3.1.- Begi-protesiak

Tramitazioa egin aurretik, bi aurrekontu eta txosten medikoa aurkeztu behar dira.

Ez da kontzeptu berarengatik laguntzarik emango baldin eta azken hiru urteetan ordaindu bada, gizarte-langileak salbuespenezko proposamenik egin ezean.

*1.6.3.1.- Prótesis oculares*

*Antes de realizar la tramitación, se deben presentar dos presupuestos e informe médico.*

*No se concederá ayuda por el mismo concepto si se ha abonado en los tres últimos años, salvo propuesta del/ de la trabajador/a social por tratarse de un caso excepcional.*

1.6.3.2.- Hortzetako protesiak eta konponketak.

Tratamendu primarioak jasotzen dira, estetikarik gabeko oinarri

*1.6.3.2.- Prótesis dentales y reparaciones*

*Se incluyen tratamientos primarios de base funcional, sin estética, debiendo presentar informes*

| | |
|---|---|
| funtzionalekoak, eta Osakidetzako espezialisten txosten medikoak aurkeztu beharko dira premiak adieraziz. Txosten horretan zehaztuko da ez konpontzeak eragin larria izango duela pertsonaren osasunean. | *médicos de especialistas de Osakidetza en los que consten las necesidades, manifestando en el informe que en caso de no realizarse la reparación ello afectará gravemente a la salud de la persona.* |
| Kontuan hartutako kontzeptuak: profilaxia/garbiketa, fundak, zigilatzeak, enpasteak, berreraikuntzak, endodontziak (desbitalizazioak), zubi finkoak, ordezko hortzeria osoa, zorroak eta koroak, betiere Osakidetzak estaltzen ez baditu. | *Conceptos considerados: profilaxis/limpieza, fundas, sellados, empastes, reconstrucciones, endodoncias (desvitalizaciones), puentes fijos, dentadura postiza completa, fundas y coronas, siempre que no lo cubra Osakidetza.* |
| Kontuan hartzen ez dituen kontzeptuak: erauzketak, inplanteak, portzelana edo beste material sofistikatuagoak, ortodontzia. | *Conceptos no incluidos: extracciones, implantes, porcelana u otros materiales más sofisticados, ortodoncia.* |
| Ez da tratamendu espezifiko berarengatik laguntzarik emango baldin eta azken bost (5) urteetan ordaindu bada, gizarte-langileak salbuespenezko proposamenik egin ezean. | *No se concederá ayuda por el mismo concepto si se ha abonado en los últimos cinco (5) años, salvo propuesta del/ de la trabajador/a social por tratarse de un caso excepcional.* |
| 1.6.3.3.- Gastu farmazeutikoak | *1.6.3.3.- Gastos farmacéuticos* |
| Gastuak ordainduko dira baldin eta gastua osasun-sistema publikoak estaltzen ez badu. | *Los gastos se abonarán en caso de que no los cubra el sistema público de salud.* |
| Gastu puntualak izapidetuko dira kontzeptu honetarako baldin eta pertsonak ez badu inolako diru-sarrerarik farmaziaren faktura ordaintzeko. | *Por este concepto, se tramitarán gastos puntuales si la persona no dispone de ningún ingreso para el pago de la factura de la farmacia.* |
| Tramitatu aurretik, txosten medikoa eta tratamendu aktiboaren orria aurkeztu behar dira. | *Previamente a la tramitación, se deben presentar informe médico y la hoja de tratamiento activo.* |
| 1.6.3.4.- Gastu soziosanitarioak. | *1.6.3.4.- Gastos sociosanitarios* |
| Zentroko arreta-gastuei dagokie: gehienez 1.400 euro. | *Corresponde a los gastos de centros de asistencia: máximo, 1.400 euros.* |
| 1.6.4.- Hileta-gastuen prestazioak | *1.6.4.- Prestación de gastos funerarios* |
| Eskumen hau udalari dagokio (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen III. kapitulua, 25. artikulua, k letra). | *Esta competencia corresponde al ayuntamiento (Artículo 25, letra k, del Capítulo III de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local).* |

Bergarako Udala

| | |
|---|---|
| Bizikidetza-unitateak ehorzketatik eratorritako gastuei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez duenean izapidetzen da. Gehienez, 1.500 euro. | *Se tramita cuando la unidad convivencial carece de recursos económicos para hacer frente a los gastos derivados del sepelio. Máximo, 1.500 euros.* |
| 1.6.5.- Gizarteratzeko laguntzak<br>Gizarteratzeko laguntzen helburua da erabiltzaileak lan, prestakuntza, aisialdi eta astialdi esparruetan integratzen laguntzea.<br>Urteko gehieneko zenbatekoa 600 euro izango da.<br>25 urtetik gorako pertsonentzako prestakuntza-gastuak, betiurteere sistema publikoak estaltzen ez dituen Lanbide Heziketaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren modalitatean.<br>Prestakuntza-ekintzak Bergaran egin beharko dira, edo bestela, halakorik ezean, Bergarako herritik gertuen dagoen distantzia geografikoko puntuan.<br>• Matrikula, 200 euro arte.<br>• Joan-etorriak. Gehienez 60 euro hileko (gehieneko kopurua muga bezala hartuta, bakoitzaren gastuaren arabera ordainduko da).<br>• Eskola-materiala, 100 euro arte.<br>• Gizarte-langileak eskatzailearen gizarteratze eta laneratze prozesurako egoki baloratutako beste kontzeptu batzuk. | *1.6.5.- Ayudas para la integración social*<br>*Las ayudas para la integración social tienen por objeto contribuir a la integración de las personas usuarias en los ámbitos laboral, formativo, de ocio y tiempo libre.*<br>*La cuantía máxima anual será de 600 euros.*<br>*Gastos de formación para mayores de 25 años en modalidad de formación profesional o certificado de profesionalidad no cubiertos por el sistema público.*<br>*Las acciones formativas deberán realizarse en Bergara o, en su defecto, en el punto de distancia geográfica más próximo a la localidad de Bergara.*<br>• *Matrícula, hasta 200 euros.*<br>• *Desplazamientos. Máximo, 60 euros mensuales (siendo esta la cuantía límite máxima, ya que se abonará en función del gasto de cada persona).*<br>• *Material escolar, hasta 100 euros.*<br>• *Otros conceptos debidamente valorados por el/la trabajador/a social de cara al proceso de integración sociolaboral de la persona solicitante.* |
| 1.6.6.- Identifikazio-agiriak berrizteko/lortzeko garraio-gastua:<br>Baldintza eta ezaugarriak:<br>• Joan-etorrien gastua garraio publikoaren kostuaren arabera ordainduko da.<br>• Tramite kostua, gehienez 50 euro. | *1.6.6.- Gasto de transporte para la renovación/obtención de documentos de identidad:*<br>*Condiciones y características:*<br>• *El gasto de los desplazamientos se abonará en función del coste del transporte público.*<br>• *Coste del trámite, máximo 50 euros.* |
| 1.6.7.- Beste batzuk<br>Gizarte Zerbitzuetako profesionalen arabera pertsonaren osasun eta garapenerako beharrezko jotzen den gastua. Kontzeptu | *1.6.7.- Otros*<br>*Gasto que, a juicio del personal profesional de los Servicios Sociales, se considere* |

| | |
|---|---|
| berberarengatik ez da laguntzarik emango baldin eta azken laguntza eskatu zenetik lau (4) urte ez badira pasa. | *necesario para la salud y desarrollo de la persona. No se concederán ayudas por el mismo concepto si no han transcurrido cuatro (4) años desde la última solicitud de ayuda.* |
| 1.7.- Aurretiaz zorpetu izanagatiko gastuengatik, gehienez 3.000 euro urtean. Bi bizikidetza-unitate baldin badira, urtero 1.500 euro bakoitzari, bien zorra bada.<br><br>Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, lehendik sortutako zorrengatiko gastuak direla-eta (bai alokairu, hipoteka, energia, "linea zuriko" etxe-tresna elektriko eta altzarietarako, bai etxebizitza konpontze, egokitze eta/edo oinarrizko instalazioak egiteko, bai etxebizitza mantentzeko edo oinarrizko premietarako gastu batengatik), urtean gehienez ezar daitezkeen diru-kopuruak ezin izango dira izan, kasu bakoitzean, aipatutako idatzi-zatietan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak baino handiagoak. | *1.7.- Gastos por endeudamiento previo, máximo 3.000 euros anuales. Si se trata de dos unidades convivenciales, 1.500 euros anuales a cada una, si la deuda es de ambas.*<br><br>*Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, en cuanto a los gastos por deudas contraídas previamente (por gasto de alquiler, hipoteca, energía, de mobiliario y electrodomésticos de "línea blanca", de reparación, adaptación y/o instalaciones básicas de la vivienda, de mantenimiento de vivienda o de necesidades primarias), las cuantías económicas establecidas como máximo anual no podrán superar, en cada caso, las cuantías máximas previstas para dichos conceptos en los párrafos anteriores.* |
| Dena dela, alokairu, energia eta etxebizitza mantentzeko kontzeptuei dagozkien GLL/GLULak jasotzea ez da bateragarria Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzearekin (aurrerantzean, EPO), Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean (aurrerantzean, EPO) etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa ordaintzeko etxebizitzako gastuetarako prestazio ekonomikoarekin, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Aginduan (Gaztelagun Programako etxebizitza alokatzeko laguntzak arautzen dituena) aurreikusitako laguntzekin eta 2023ko ekitaldian aurreikus daitezkeen ahultasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza librea alokatzeko beste laguntza batzuekin.<br><br>Salbuespenak planteatu daitezke, gizarte langilearen balorazioaren arabera. | *No obstante, las AES/AES(m) relativas a los conceptos de alquiler, energía y mantenimiento de vivienda incompatibles con la percepción de Prestación Complementaria de Vivienda (en adelante PCV), con la prestación económica de vivienda destinada a satisfacer el derecho subjetivo de acceso a la ocupación legal de vivienda prevista en la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (en adelante PEV), con las ayudas previstas en la Orden de 26 de abril de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, por la que se regulan las ayudas al alquiler de vivienda del Programa Gaztelagun, y con otras ayudas al alquiler de vivienda libre para hacer frente a las situaciones de vulnerabilidad económica y social que pudieran preverse en el ejercicio 2023*<br><br>*Se pueden plantear excepciones, conforme a la valoración del trabajador o trabajadora social.* |

Bergarako Udala

| | |
|---|---|
| Aurretiazko zorpetze gastu bezala onartu ahal izango da alokairuko beste etxebizitza edo logela batera sartzeko gastua.<br><br>Bizitegi aukerarik gabe geratzeko benetako arriskua dagoela egiaztatzen bada, alokairuko etxebizitzan sartzeko laguntza ordaindu ahal izango da agentziaren gastuengatik eta hilabeteko fidantzagatik, baldin eta aurreko etxebizitzatik kontzeptu hori berreskuratu ez bada, zuzenean edo zeharka.<br><br>Kontzeptu horretarako Gizarte Larrialdietarako Laguntza ematea gizarte-balorazioaren menpe dago.<br><br>Gastua onartuz gero, justifikazioa laguntza ematen denetik hilabeteko epean egin beharko da.<br><br>Beste ondarerik balu baina etxea sartzea gauzatu ezin denean, bi urteko epea emango da ondarea erabilgarri jartzeko.<br><br>Laguntza hau bost (5) urtean behin kobratu ahal izango da etxebizitza-alokairuetan eta bi (2) urtean behin logela-alokairuetan. Bi kasuetan ondo zuritu beharko da aurrez ordaindutako fidantza ezin dela errekuperatu. | *Se podrá admitir como gasto de endeudamiento previo el gasto de acceso a otra vivienda o habitación en alquiler.*<br><br>*En caso de comprobarse la existencia de un riesgo real de pérdida de recurso residencial, se podrá abonar la ayuda de acceso a vivienda de alquiler por los gastos de la agencia y la fianza de un mes, siempre que no se haya recuperado, directa o indirectamente, este concepto de la vivienda anterior.*<br><br>*La concesión de la Ayuda de Emergencia Social por este concepto está supeditada a la valoración social.*<br><br>*En el caso de aprobarse el gasto, la justificación deberá realizarse en el plazo de un mes desde la concesión de la ayuda.*<br><br>*Si dispusiera de otro bien patrimonial pero sin que pueda materializar su acceso a la vivienda, se concederá un plazo de dos años para su puesta a disposición.*<br><br>*Esta ayuda se podrá cobrar cada cinco (5) años por alquileres de vivienda y cada dos (2) años por alquileres de habitaciones. En ambos casos deberá justificarse adecuadamente la imposibilidad de recuperar la fianza previamente abonada.* |
| 2. Diru-sarrerak eta ondarea zehaztea<br><br>Diru-sarrerak eta ondarea zehazteko erabiliko diren irizpideei buruz, Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzeko erabiltzen duen araudia hartuko da kontuan.<br><br>Elkarbizitza Unitate Ekonomiko Beregainaren (EUEB/UECI) baliabide ekonomikoak zehazteko zenbaketarako, hona hemen salbuetsita geratzen diren kontzeptuak (147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa):<br><br>2.1.- 18 urte baino gutxiagoko edo, adin horretatik gorakoa izanik, desgaitasunen bat duen seme edo alabagatiko familia-prestazioak.<br><br>2.2.- Bizikidetza-unitateko kideak hezkuntzan, lanbide-heziketan, osasunean, etxebizitzan, garraioan edo gizarte-larrialdiko egoerak estalduran edo mendekotasuna duten pertsonak artatzen hastea helburu duten | *2. Determinación de ingresos y patrimonio*<br><br>*Sobre los criterios para la determinación de los ingresos y del patrimonio, se tendrá en cuenta la normativa utilizada por el Gobierno Vasco para la regulación de las Ayudas de Emergencia Social.*<br><br>*A efectos del cómputo de los recursos económicos de la Unidad Económica Independiente de Convivencia (UECI), se exceptúan los siguientes conceptos (Decreto 147/2010, de 25 de mayo):*<br><br>*2.1.- Prestaciones familiares por hija-hijo menor de 18 años o mayor de dicha edad con discapacidad.*<br><br>*2.2.- Las prestaciones, periódicas o no, que tengan por objeto el acceso de los miembros de la unidad convivencial a la educación, a la formación profesional, a la salud, a la vivienda, al transporte o a la cobertura de situaciones de emergencia social o a la* |

| | |
|---|---|
| prestazioak, aldizkakoak izan ala ez. Nolanahi ere, honako laguntza hauek ez dira baliabideen zenbaketaren xede izango:<br>• Heziketarako edo prestakuntzarako bekak, beka horietan onuradunen mantenua barne dagoenean izan ezik.<br>• Laguntza teknikoak<br>• Jangela-bekak eta garraio-bekak<br>• Ohiko etxebizitza eskuratzeko eta berritzeko laguntzak<br>• Desgaitasuna duten pertsonak mugitzeko eta garraio-gastuetarako sorospena<br>• Hirugarren pertsonen laguntzagatiko sorospena<br>• Gizarte larrialdietarako laguntzak, hargatik eragotzi gabe<br>• Arrisku egoeran dauden pertsonei zuzenduriko laguntzak, gizartean integra daitezen.<br>• Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak hartzeko laguntzak; horrelakoetan, adingabea ez da zenbatuko bizikidetza-unitateko kide gisa.<br>• Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, laguntzaile pertsonala izateko prestazio ekonomikoa eta familia-inguruneko zaintzarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, guztiak ere Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legean jasota daudenak.<br>• Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoak.<br>• Mantenu-pentsiorako edo konpentsazio-pentsiorako bideratzen ari diren zenbateko efektiboak, ebazpen judizial bidez atxiki direlako edota epai judizial bidez ezarrita daudelako, pentsio hori ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren kasuan. | *atención a personas dependientes. En todo caso, no serán objeto de cómputo en cuanto a recursos las siguientes ayudas:*<br>• *Becas de educación o formación, salvo que en ellas esté incluida la manutención de las personas beneficiarias.*<br>• *Ayudas técnicas*<br>• *Becas de comedor y de transporte*<br>• *Ayudas para el acceso a la vivienda habitual y su rehabilitación*<br>• *Subsidio de movilidad y transporte de personas con discapacidad*<br>• *Subsidio por asistencia de terceras personas*<br>• *Ayudas de emergencia social, sin perjuicio*<br>• *Ayudas destinadas a personas en situación de riesgo para su integración social.*<br>• *Ayudas para la acogida de menores de edad en situación de desprotección, en cuyo caso la persona menor de edad no computará como miembro de la unidad convivencial.*<br>• *La prestación económica vinculada al servicio, la prestación económica para contar con asistente personal y la prestación económica para el cuidado en el entorno familiar y de apoyo a personas cuidadoras no profesionales; todas estas prestaciones están contempladas en la Ley 39/2006, de 14 de noviembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.*<br>• *Prestaciones económicas a mujeres víctimas de violencia de género.*<br>• *Las cuantías efectivas que estén destinadas a pensión de manutención o a pensión compensatoria, por haber sido retenidas por resolución judicial o haber sido impuestas por sentencia judicial, en el caso de la persona obligada al pago de dicha pensión.* |

| | |
|---|---|
| • Azpierrentamendu-kontratuagatik jasotako zenbatekoak, indarrean dagoen legeriaren arabera, betiere azpierrentamenduagatik jasotako zenbatekoen baturak etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu beharreko zenbatekoa gainditzen ez badu. Kasu honetan alokairuagatik ordaindu beharreko kopurua bezala hartuko da alokairuaren prezioa ken azpiarrendamendutik jasotakoren arteko diferentzia.<br>• Kapitalizazioagatik izandako diru-sarrerak.<br>• Ohiko etxebizitza saltzeagatik sortutako baliabideak ez dira baliabideen zenbaketan sartuko, baldin eta baliabide horiek bizikidetza-unitatearen ohiko bizilekurako etxebizitza berri bat erosteko inbertitzen badira.<br>Aurreko lerrokadan aurreikusitako berrinbertsioa egiteko gehieneko epea urtebetekoa izango da, salmenta egiten den egunetik zenbatzen hasita.<br>• Mantenurako pentsioa eta konpentsazio-pentsioa berdin tratatuko dira (jasotzen dituen ezkontidearentzat diru-sarrera gisa eta ordaintzen dituenarentzat gastu gisa zenbatuko dira). | • *Las cantidades percibidas por contrato de subarriendo, de acuerdo con la legislación vigente, siempre que la suma de las cantidades percibidas por subarriendo no supere el importe a abonar por el alquiler de la vivienda, en cuyo caso se considerará como cantidad a pagar por alquiler la diferencia entre el precio del alquiler y la cantidad percibida por subarriendo.*<br>• *Ingresos por capitalización.*<br>• *Los recursos generados por la venta de la vivienda habitual no se incluirán en el cómputo de recursos cuando éstos se inviertan en la adquisición de una nueva vivienda para residencia habitual de la unidad convivencial.*<br>*El plazo máximo para realizar la reinversión contemplada en el párrafo anterior será de un año, a partir de la fecha de la venta.*<br>• *La pensión de manutención y la pensión compensatoria tendrán el mismo tratamiento (se computarán como ingreso para el cónyuge que los perciba y como gasto para el que los abone).* |
| *3.- Eskaera egiteko epea*<br>GLL/GLULak aribidean dagoen urtearen azaroaren 30a arte eska daitezke. Data horretatik aurrera aurkeztutako eskabideak ezeztatu egingo dira epez kanpo aurkezteagatik. Salbuespenak aztertzeko aukera egongo da teknikariaren txostenean oinarrituta. | *3.- Plazo de solicitud*<br>*Las AES/AES(m) se pueden solicitar hasta el 30 de noviembre del año en curso. Las solicitudes presentadas a partir de dicha fecha serán denegadas por presentarse fuera de plazo. Se podrán hacer excepciones baja informe del personal técnico.* |
| *4.- Onartzea*<br>Ezin izango dira GLL/GLULak eman eskaera aurkeztu baino lehenagoko hilabeteei dagozkien aldizkako gastuei aurre egin ahal izateko, 2022ko martxoaren 31ra bitartean eskatutako espedienteak izan ezik, horiek urtarriletik ordainduko baitira.<br>Hileko 1-15 artean (biak barne) egiten diren eskaerei laguntza onartuko zaie eskaera egin | *4.- Concesión*<br>*No se podrán conceder AES/AES(m) para cubrir gastos periódicos correspondientes a los meses anteriores a la fecha de presentación de la solicitud, excepto los expedientes solicitados hasta el día 31 de marzo de 2022, que serán abonados desde el mes de enero.*<br>*Las solicitudes que se realicen entre los días 1 y 15 de cada mes (ambos inclusive)* |

| | |
|---|---|
| duten hilabetea kontuan edukiz; ostera, hilaren 16tik (barne) aurrera egindako eskaerei hurrengo hilabetetik aurrera onartuko zaie laguntza. | *obtendrán la ayuda teniendo en cuenta el mes en que se ha presentado la solicitud, mientras que si las solicitudes se realizan a partir del día 16 de cada mes (16 inclusive) obtendrán la ayuda partir del mes siguiente.* |